



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ETA ASKATASUNEN ETA INFORMATIKAREN BATZORDEAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU HITZARMENA

Vitoria-Gasteizen, 2007ko azaroaren 9an

BILDU DIRA

Alde batetik, Antoni Farriols i Solá jauna, Askatasunen eta Informatikaren Batzordearen (CLI) lehendakaria, elkartearen agintari nagusia izanik, 2005eko maiatzaren 21eko Estatutuen 31. artikulua esleitutako eskumenak erabiliz, eta Batzordearen ordezkartzan.

Beste aldetik, Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (aurrerantzean DBEB) zuzendaria, Bulegoaren ordezkartza eginez, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 15. artikuluan xedatutako eskumenak kontuan hartuta bere izendapena egin zuen 83/2004 Dekretuari jarraiki (2004ko maiatzaren 14ko 90 zk.ko EHAA).

Bakoitzak bere erakundearen izenean eta ordezkartzan jarduten du, eta biek aitortzen diote elkarri Lankidetzaren Hitzarmen hau izenpetu ahal izateko jarduteko legezko gaitasuna. Era berean,

ADIERAZTEN DUTE

- I. Eskubideen eta Informatikaren Batzordeak (CLI) zerbitzu publikoaren eginkizunak betetzen dituela datu pertsonalen arloan, horiek babesteko eskubidea defendatuz, sustatuz, aztertuz eta zabalkundea eginez, bai eta erabilera informatikoen arloan ere, norbanakoen eskubideak defendatuz, sustatuz, aztertuz eta horien zabalkundea eginez.



II. Askatasunen eta Informatikaren Batzordearen (CLI) 2003ko azaroaren 25eko Estatutuen 7. artikuluan honako jarduerak zehazten direla:

- Gizarteko eragile guztien artean beharrezko neurriak sustatzea informatikaren erabilera bidegabeen eta okerren ondorioz datu pertsonalak babesteko eskubidearen arloan eta / edo norbanakoen askatasunaren arloan egiten diren urraketak, arau-haustek, jartzen diren mugak edo eragiten diren galerak ezagutaraztera emateko lehendabizi, eta geroago horiek desagertarazteko.
- informatikaren erabilera bidegabeen eta okerren ondorioz datu pertsonalak babesteko eskubidearen arloan eta /edo norbanakoen askatasunaren arloan egiten diren urraketak, arau-haustek, jartzen diren mugak edo eragiten diren galerak jasan dituzten pertsonentzako behar duten laguntza, asistentzia eta defentsa sustatzea.
- Eskubide horren arloko eta askatasunen arloko azterketak eta zabalkunde ekintzak sustatzea; horretarako, konbentzioak, jardunaldiak, ikastaroak eta abar antolatuz eta gai horien inguruko liburuak, eskuliburuak edo artikulak argitaratuz.
- Eskubidearen eta askatasunen arloan egiten diren urraketak, arau-haustek, jartzen diren mugak edo eragiten diren galerak saihestea; horretarako, zabalkunde, prestakuntza edo antzeko bestelako jarduerak antolatuz, era horretako jokamoldeak ez daitezen zabalduta arlo publikoan, gizartean, enpresa arloan edo norbanakoen arloan.

Eskubideen eta Informatikaren Batzordearen (CLI) Estatutuen 7.1.5 artikuluan honako eginkizunak zehazten dira: ordezkari sozialetan organoen aurrean, erakundeen, administrazio publikoen eta entitate pribatuen aurrean proposamenak egitea lege arloan, arlo judizialean, administrazio arloan edo gizarte arloan hartu beharrezko neurriak har ditzaten, informatikaren erabilera bidegabeen eta okerren ondorioz datu pertsonalak babesteko eskubidearen arloan eta / edo norbanakoen askatasunaren arloan babes-eskubidea defendatu, zabalduta eta sustatzeko; bai eta urratutako eskubideak konpontzeko, kaltetuei nolabaiteko ordaina emateko eta urraketa eta arau-hausteen egileak jazarri eta zigortzeko neurrien proposamena egitea ere.


III. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10. artikuluko 1. paragrafoak xedatzen duenez,



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



DBEB zuzenbide publikoko entea izango da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak. Eginkizunak honako hauek dira funtsean:

- 
- Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere informaziorako eskubideari eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak indarrik gabe uzteko eskubideari dagokienez.
 - Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea. Beharrezkoa bada, datuen tratamendua datuak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea, beste erakunde batzuen aginpideei ezer kendu gabe.
 - Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea eta datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonari.
 - Ikuskatzeko ahalmena erabiltzea, eta beharrezkoa bada, zehatzeko ahalmena ere bai.
 - Datu pertsonalen fitxategiak badirela gauza jakinekoa izan dadin zaintzea.
 - Funtzio estatistiko publikoari buruzko legeek dakartzaten xedapenak bete daitezen zaintzea.
 - Herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderari erantzutea eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderari erantzutea.

IV. DBEBren eta CLIren borondatea dela datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen zabalkunde ahalik eta handiena egiteko bitartekoak sustatzea eta eskubide hori errespetuz tratatzeko jokaerak hartu daitezela sustatzea.

Entitate biek, datuen babesaren arloan lankidetzan aritu beharraren jakitun, Esparru Hitzarmen hau izenpetzen dute eta ondokoa hitzartzen dute:



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da lankidetzarako esparru bat eratzea Askatasunen eta Informatikaren Batzordearen (CLI) eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren artean.

BIGARRENA. DBEBren betebeharrak.

DBEBk honako jarduera hauek gauzatuko ditu:

- a) Ondoko hauen zabalkundea egitea bere web orriaren bidez:
 - o CLIk bidaltzen dizkion datuak babestearen inguruko tesiak, ikerketa egitasmoak eta bestelako dokumentazio lanak, herritarrentzat nahiz erakundeentzat interesekoak direla irizten badie.
 - o CLIk antolatzen dituen ekitaldiei eta jardueri buruzko prentsa oharak.
 - o CLIren web orrialderako lotura jartzea bere web orrian.
- b) Askatasunen eta Informatikaren Batzordea (CLI) elkartearen eskura jartzea DBEBren aholkularitza zerbitzuak, datu pertsonalen babeserako oinarriko eskubideari dagokionean.
- c) Bulegoaren "Dokumentu funtsak" CLIren kideen eskura jartzea, arlo horretan ezarri beharreko legediak horretarako aukera ematen duen neurrian.
- d) Edozein jarduera arlotan datu pertsonalen gaiarekin zerikusia duten egoeren azterketa sustatzea, baldin eta Hitzarmen hau izenpetzen duten alde bietako edozeinen arreta eta erantzuna eskatzen badute.



- e) CLiko bazkideei DBEBn ikasketak eta praktika aldiak egiteko aukera ematea. Baina jarduera hori ez da inondik izango laneko jarduera ordaindua eta DBEBk izendatutako tutore batek koordinatuko du.
- f) Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen zabalkunderako jardunaldiak edo ekitaldiak antolatzea, hitzarmen hau izenpetzen dutenek irizten dioten aldizkakotasunarekin.

HIRUGARRENA. CLIren betebeharrak.

CLI Elkarteak honako jarduera hauek gauzatuko ditu:

- a) DBEBri bidaltzea bertako adituek egiten dituzten datuak babestearen inguruko artikulak, tesiak, ikerketa egitasmoak eta bestelako dokumentazio lanak.
- b) Ondoko hauen zabalkundea egitea bere web orriaren bidez:
 - o DBEBk antolatzen dituen ekitaldiei eta jarduerari buruzko prentsa oharra.
 - o DBEBren web orrialderako lotura jartzea bere web orrian.
- c) Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen zabalkunderako jardunaldiak edo ekitaldiak antolatzea, hitzarmen hau izenpetzen dutenek irizten dioten aldizkakotasunarekin.
- d) Edozein jarduera arlotan datu pertsonalen gaiarekin zerikusia duten egoeren azterketa sustatzea, baldin eta Hitzarmen hau izenpetzen duten alde bietako edozeinen arreta eta erantzuna eskatzen badute.
- e) Askatasunen eta Informatikaren Batzordea (CLI) Elkarteak osatzen duten erakundearen bitartez, laguntzea DBEBk bere eskumenen arloan egiten dituen proposamenak eta jarraibideak ezagutarazten eta bistarazten sektorean.
- f) DBEBren eskura jartzea bere "Dokumentu funtsak".
- g) DBEBri proposatzea elkarteko bazkide batzuen izenak, DBEBn ikasketak eta praktika aldiak egin ditzaten, bazkide horien gaineko erantzukizun zibila elkarrekin bere gain hartuz.



LAUGARRENA. Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak.

Administrazio autonomikoan, Toki Administrazioan eta Foru Administrazioan datu pertsonalak babesteari buruzko zenbait egitasmo eta ekintza zehaztu ahal izango dira Hitzarmen honen esparruan. Era berean, urtero eta ekitaldi bakoitza hasi aurretik, urteko jarduera plana erabaki ahal izango da.

Egitasmo, jarduera edo plan horiek zehazteko, aldez aurretik nahikoa denbora eta behar den aurrekontua egongo dira. Alde biek adostuko dute zein izango den kostu ekonomikoa eta bakoitzaren parte hartzea egitasmo, jarduera edo plan horietan.

BOSGARRENA. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratzen da lau kiderekin. Hitzarmena izenpetzen duen alde bakoitzak bi kide izango ditu. Alde bietako edozeinek eskatzen duen bakoitzean bildu beharko da Batzordea eta gutxienez urtean behin. Hona hemen Batzordearen eginkizunak:

- a) Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak zehaztea, halakorik badago, eta jarduera horiek nola gauzatu eta finantzatuko diren zehaztea.
- b) Planak eta egitasmoak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea, eta diru-baliabideen jarraipena egitea, halakorik egonez gero.
- c) Hitzarmenaren ezarpenaren eta interpretazioaren gainean egon daitekeen edozein gorabehera ebaztea.

SEIGARRENA. Hitzarmenaren iraupena eta Hitzarmena bukatzeko arrazoiak.

Hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo egunean egongo da indarrean eta behin betiko iraupena izango du.

Alde bietako edozeinek Hitzarmena bukatzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dio beste aldeari, eta jakinarazpena egin eta hiru hilabeteko epean bukatu egingo da Hitzarmena.



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



Alde biek adostu dute Hitzarmena bukatzeko arrazoiak direla bertan zehaztutako klausulak ez betetzea eta indarrean dagoen legediak xedatzen duena kontuan hartuta, gerta daitezkeen bestelako ez betetzeak.

Ados daudela adierazteko, alde biek izenpetzen dute Lankidetzaren Hitzarmen hau, bikoiztuta, hasieran adierazitako tokian eta egunean, eta Lankidetzaren Hitzarmenaren ale bana hartzen dute.

Iñaki Vicuña de Nicolás
Datuak Babesteko Euskal
Bulegoaren aldetik

Antoni Farriols i Solá
Askatasunen eta Informatikaren
Batzordearen (CLI) lehendakaria